



ZALDIBIAKO UDALA  
ALKATETZA  
(Gipuzkoa)

## OSASUN ZENTROETAN ALDAKETA GARRANTZITSUAK IZANGO DIRELA JAKINARAZI DIGU OSAKIDETZAK

Covid-19 pandemia dela eta gaur egun dugun osasun-alertaren ondorioz, berehala **Kontingentzia Plan** espezifiko bat zabaldu behar du Osakidetzak Goierri eskualdean. Plan horren barne sartzen da gure biztanleei ematen zaien osasun arretaren berrantolaketa osoa. Berrantolaketa horrek eragina du bai Zumarragako Ospitalean, bai gure lehen mailako arretako osasun zentroetan.

Ildo horretan, dagoeneko egindakoez gain, **aldaketa garrantzitsu batzuen berri eman nahi dizuegu:**

**Datorren ASTELEHENETIK, MARTXOAREN 23tik aurrera**, lehen mailako arretari dagokionez, **kontsultategi txiki guztiak itxiko dira**, ematen den osasun-arreta guztia zentro batzuetan elkartzeko; horrela, hainbat zirkuitutan antolatu ahal izateko.

**Honako herrietan kokaturik dauden osasun zentroak egongo dira irekita:** Azkoitia, Azpeitia, **Beasain**, Lazkao, Legazpi, **Ordizia**, Zumarraga eta Idiazabal. **Paziente bakoitzari banan-banako balorazioa egingo zaio telefonoz**, eta aurrez aurreko zein etxeke osasun-arreta bermatuta egongo da uneoro.

Medikuarengana joateko **hitzordua eskatzeko deitu behar den zenbakia betikoa da: 943 007 635**. Kontsulta presentzial bat egin behar izanez gero, telefonoz jakinaraziko diote paziente bakoitzari nora bertaratu behar duen.



Zaldibian, 2020ko martxoaren 21ean